

Aitzakiak

Zerbait egitea gustukoa ez dugunean aitzakiak bilatzen ditugu sarritan. Sekuentzia honetan gai hori izango dugu hizpide eta honako ariketak egin ahal izango dituzu:



- Egoeren eta aitzakien arteko lotura egin, eta aitzakia mota zehaztu.
- Testua irakurri eta baieztapenak egia ala gezurra diren esan.
- *Zerbaiti lotzeko prest egon* esapidearen baliokidea zein den adierazi eta mintzasaioa egin.
- Aitzakia jarriz zenbait mezu grabatu.

1. Aitzakia ona al da?

Egoera hauetarako zein aitzakia erabiliko zenuke? Egin loturak eta konparatu erantzunak ikaskidearekin.

egoerak	aitzakiak
Hitzordu batera berandu iristen zarenean...	Ebakuntza bat daukat
Zerbait nahi gabe hautsi duzunean...	Ileapaindegian txanda hartua dut
Agindutako zerbait egin ez duzunean...	Autobusa berandu etorri da
Lagunekin egoteko gogorik ez duzunean...	Ahaztu egin zait
Bidaia batera joan nahi ez duzunean	Nik horrela aurkitu dut

Erantzun galderei:

- Aitzakia ona dela esaten dugu, ematen den azalpena sinesgarria denean. Baina nola esaten diogu kontrakoa gertatzen denean?
 - aitzakia sinesgarria
 - aitzakia merkea
 - aitzakia hutsala
- Honako bertsoan emandako aitzakia nolakoa dela esango zenuke? Komentatu taldean.

“Ba al zatoz afaltzera?
badut plan aparta”
Ai nahiz ta nahiko nukeen
ezingo dut, kaka
lehendik abisatzea
komeni ohi da ta
ze orain baterian
dut ehuneko bata

Aroa Arrizubieta.
Bertsolari aldizkaria
2020-02-13

2. Geure burua engainatzea

Irakurri Onintza Enbeitaren Aitzakia artikulua, eta, binaka, adierazi ondoko baieztapenak egia ala gezurra diren. Ondoren, erantzunak konparatu taldean:

Aitzakia

2021eko martxoak 17

Onintza Enbeita



berria

Duela urtebete hasi nintzen ordainpeko telebistetako telesailak ikusten. Ordura arte aukeratu egin behar izaten nuen egunean zehar zer egin, baina bat-batean, denbora sobera nuela konturatu nintzen. Izan ere, baserrian bizitzeak abantailaren bat izan behar zuen, eta ez nuen orduero balkoira ateratzeko deialdiei begira egon beharrik izan. Txaloak zartaginarekin jota ere, neuk bakarrik entzuteko joko nituzkeen, eta horretarako, hobe nuen miresmena eta esker ona erakusteko beste modu batzuk erabiltzea.

Hasi nintzen telesailak ikusten eta telefonoa edozein ordutan eskuan hartzen. Aplikazio guztiak eguneratuta izan arte ez nuen bakerik izaten. Denbora neukan hori egiteko, irakurtzeko, telesailak ikusteko... Kontua da ez zitzaidala burutik pasatu ere egin, kristalak garbitzea, esate baterako. Nola diren gauzak: denbora sobera dugula ikusi, eta edozein gauzari lotzeko prest gaude, baina logikaz egin beharko genituzkeen gauzak ez ditugu egiten.

Urtebete pasatu da, eta orduak laburtu egin zaizkit: telesailak ikusteko loari orduren bat edo beste lapurtzen diot, eta telefonoari denbora gehiegi eskaintzen diot. Kristalek garbitu gabe jarraitzen dute. Orain badakit ez dela denborarik ez daukadalako. Izango banu ere, gutxitan egingo nukeen lana da.

	Egia	Gezurra
Duela urtebete hasi zen Onintza ordaindu behar ez diren telesailak ikusten		
Onintza ez zen balkoira ateratzen txaloak jotzera, baserrian bizi zenez, ez zuen denborarik horretarako		
Bere kasuan, pandemian jo eta ke lanean ari zirenentzako txaloak jotzea ez zela eraginkorrena pentsatu zuen		
Onintzak ez zuen atsedetik hartzen mugikorreko zeregin batzuk egin arte		
Bere ustez, denbora soberan dugunean edozein motatako lana egiteari ekiten diogu		
Berak dio gaur egun gauza batzuk ez egiteko arrazoia ez dela denbora falta		

3. Zeri lotzeko prest zaude?

Onintzak dio gustukoa ez dugun hori egiteko edozein gauzari lotzeko prest egoten garela. Erreparatu *zerbaiti lotzeko prest egon* esapideari. Hauek guztiak baliokideak dira testuinguru honetan?

- Zerbaiti ekiteko prest egon
- Zerbaiti heltzeko prest egon
- Zerbaiti muzin egiteko prest egon
- Zerbaiti men egiteko prest egon



Kontuan hartu:

Ekin, heldu eta *men egin* aditzak NORI deklinabide-kasuarekin erabiltzen dira: ZERBAITI ekin, heldu edo men egin.

- Lehengoan ez nuen kalera irten nahi eta **irakurtzeari ekin nion**.
- Aspertuta nengoen eta bezperan egin gabe utzitako **lanari heldu nion**.
- Ez nion aurka egin, berak **esandakoari men egin nion**.

Zuk denbora librea duzunean nola jokatzen duzu lanik gogaikarrienak saihesteko? Eman pare bat adibide ikaskideari, goiko egiturak erabiliz.


Nik hautsak kendu beharrean,
otorduak prestatzeari
ekingo nioke...

Ni ere edozeri lotzeko
prest egongo
nintzateke, adibidez,...

4.- Aitzakiarik onena

Hainbat egoeratan aitzakiaren bila ibiltzen gara maiz. Irakurri mezu, ohar edota gonbidapen hauek eta asmatu bakoitzarentzat aitzakia bat. Ondoren, grabatu bakoitzaren erantzuna audio batean.


1. egoera: Lagun baten ezkontza-gonbidapena:




2. egoera: Lagunaren mezua:

Aupa, Andoni!!
 Duela aste batzuk komentatu genuen bezala, Izaskun, Maite, Iñigo, zu eta bostontzat tokia hartu dut ostiral honetan afaltzera joateko. Hitzordua 8etan jarri dugu toki-ona tabernan. Asmoa aurretik zerbait hartzea da. Ostiral arte!
 Idoia

3. egoera: Anaiak utzitako oharra:



4. egoera: Auzokoaren mezua:



Talde handian, grabazioak entzun ahala, jaso taulan bakoitzak emandako informazioa gero mezuak baloratu ahal izateko. Nabarmendu originalena, umoretsuena, eta sinesgarriena.

	Nire aitzakia	1. ikaskidearen aitzakia	2. ikaskidearen aitzakia	3. ikaskidearen aitzakia	4. ikaskidearen aitzakia	5. ikaskidearen aitzakia	6. ikaskidearen aitzakia
1. egoera: Ezkontza-gonbidapena	Beste ezkontza bat						
2. egoera: Lagunaren mezua							
3. egoera: Anaiaren oharra							
4. egoera: Auzokoaren mezua							

ERANTZUNAK

1. Aitzakia ona al da?

egoerak	aitzakiak
Hitzordu batera berandu iristen zarenean...	Autobusa berandu etorri da
Zerbait nahi gabe hautsi duzunean...	Nik horrela aurkitu dut
Agindutako zerbait egin ez duzunean...	Ahaztu egin zait
Lagunekin egoteko gogorik ez duzunean...	Ileapaindegian txanda hartua dut
Bidaia batera joan nahi ez duzunean	Ebakuntza bat daukat



aitzakia merkea

2. Geure burua engainatzea

1. Gezurra; 2. Gezurra; 3. Egia; 4. Egia; 5. Gezurra; 6. Egia

3. Zeri lotzeko prest zaude?

Baliokideak: Zerbaiti ekiteko prest egon; Zerbaiti heltzeko prest egon ; Zerbaiti men egiteko prest egon